2026 URTEKO KUDEAKETA PLANA

URKIOLA LGA

DURANGALDEA ESKUALDEA

Edukiak

1. SARRERA 3
2. URKIOLA LGAren FUNTZIONAMENDU OROKORRA 4
3. URKIOLA LGAk EMANDAKO ZERBITZUAK 5
4. LGEPren URTEKO KUDEAKETA PLANA: ARDATZAK 8
5. URKIOLA LGAren EKINTZAK 62

1. SARRERA

Landa Ingurunearen Garapenerako, ekainaren 30eko 7/2022 Legearen arabera, gobernantzaren eskualdeko ikuspegia Landa Garapeneko Elkarteetan (LGE) oinarrituta artikulatuko da; elkarte horiek, borondatez eta Lurralde zerbitzuarekin koordinatuta, Administrazio publikoaren erakunde laguntzaile gisa aitortuko dira.

Lotura hori gauzatzeko, elkarteek urte anitzeko lankidetza hitzarmen bat sinatuko dute Eusko Jaurlaritzan landa garapenaren arloko eskumena duen sailarekin, bai eta landa garapenerako elkartearen eremuko lurralde historikoari lotutako foru aldundiko sail eskudunarekin ere.

Lankidetza hitzarmena sinatzen duten LGEek beren estatutuetan jasotako gainerako eginkizunak betetzen jarraitu ahal izango dute, betiere dagokion hitzarmenean adostutakoaren aurkakoak ez badira.

Hitzarmen horrek bertan jasotako funtzioak eta jarduketak behar bezala gauzatzearekin lotutako antolakuntza, finantza eta kudeaketa alderdiak arautuko ditu. Jarduketa horien artean daude, besteak beste, landa garapeneko eskualdeko programak egitearekin eta kudeatzearekin zerikusia dutenak, baita urteko kudeaketa planak egitearekin lotutakoak ere, legetik bertatik eratorritako plangintza tresnak.

Testuinguru horretan, lankidetza hitzarmenak ez dira oraindik sinatu, eta, beraz, aurretiko lan esparruan oinarritutako hurbilketa bat egin da, LGEren antolaketa, finantza eta kudeaketa alderdiei dagokienez, dituen konpromisoak islatzeko.

Era berean, Landa Garapeneko Eskualde Programa (LGEP) egiteko prozesua burutu da Durangaldean. Eusko Jaurlaritzaren Elikadura, landa, Garapen, Nekazaritza ta Arrantza sailburuaren 2025eko azaroaren 26ko aginduaren bidez, legeak berak 10.4 artikuluan ezartzen duen bezala. Honen ostean Bizkaiko Foru Aldundiak, OF 01741/2026 akordioaren bitartez, 2026.eko martxoaren 09koa, onartzen ditu Bizkaiko Lurralde Historikoko sei eskualde-eremuei dagozkien eskualde programak Horregatik, dokumentu honek eskualdeko landa garapenaren alde LGEak emandako zerbitzuak eta martxan jarritako ekintzak jasotzen ditu LGEaren ekintzak (5. kapitulua), LGEP 2025-2027 estrategia berriaren arabera.

2. URKIOLA LGAaren FUNTZIONAMENDU OROKORRA

Momentuko ekitaldirako definitutako zerbitzu, ekintza eta proiektuez gain, kudeaketa-plan honetan garrantzitsua da LGEren kudeaketarekin lotutako barne-zereginak jasotzea. Taula honetan ageri dira:

LGEaren KUDEAKETAKO BARNE-ZEREGINAK
LGEren funtzionamendu egokia bermatzen duten kudeaketako barne-zereginak honako hauek dira: – Urteko Kudeaketa Plana egitea eta proposatutako jardueren jarraipena egitea. – Urteko laburpen-memoria egitea, aurreikusitako jardueren gauzatze-maila aztertuta. – Elkartearen barneko administrazio-kudeaketaren berezko zereginak: zuzendaritza-batzordeen deialdia, aktak eta memoriak egitea, aurrekontua kudeatzea, etab. – LGEren komunikazioa (jarduera propioak zabaltzea, prentsa-oharrak egitea, ekitaldietarako izen-emateak jasotzea, sare sozialak, laguntzak, eskualdeko albiste interesgarriak, prentsaurrekoak antolatzea, etab.). – Landa garapenerako Alkarteak eskualdeko hainbat kolektiboren presentzia indartzea, emakumeen kolektiboan eragina eginez.

BETERAZPEN ADIERAZLEAK	
Adierazlea	**Urteko Helburua**
LGEP urteko kudeaketa plana	1
LGAren urteko kudeaketa plana	1
LGEP urteko memoria	1
LGAren urteko memoria	1
Batzar orokorra	1

Zuzendaritza batzorde kopurua	6
Elikadura mahaiaren bilera kopurua.	2
Turismo mahaiaren bilera kopurua	1
Euskal Abereak. Zerbitzu administratiboa ematen jarraitzea	1
Urkiola Parkearen patronatoaren bilera kopurua	1
BBAGren bilera kopurua	6
Mendinetekin bilera kopurua	8
MENEKOren bilera kopurua	5
HAZINNOVAko agenteen bilerak	3
RETAko bilera kopurua	15
BFA eta EJrekin koordinaziooko bilerak (Lurraldeko Mahai)	4
Durango 2030	2
Landue	2
Hazi Fundazioarekin kolaborazio ekimenak	10
Komunikabideetan agerraldiak	5
Zein sare sozial eta zenbat jarraitzaile bakoitzean	13 Facebook 74 Twitter
Turismoko sare sozialetako jarraitzaile kopurura	3.500 Instagram 1.254Facebook 56 Tiktok
Elikadurako sare sozialetako jarraitzaile kopurura	48 Twitter 68 Facebook 728 Instagram
Komunikaziorekin bilera kopurua°	10
DTI-HTA turismo proiektuaren bilera kopurua	2
FUTURALen bilera kopurua	8
POCTEFAren bilera kopurua	8

3. URKIOLA LGAk EMANDAKO ZERBITZUAK

Jarraian, Landa-Garapeneko Elkarteek eman beharreko zerbitzuak deskribatzen dira:

ZERBITZUA

Z. 1.-. LANDA GARAPENEKO ESKUALDEKO PROGRAMA (LGEP) berriaren gauzatzea eta hedapena gidatzea.	
DESKRIBAPENA	
– DESKRIBAPENA LGEP berria egiteko eta hedatzeko lanak jasotzen dira: – EAEko eskualde guztietarako metodologia komun baten diseinuan parte hartzea – Durangalderako LGEP berria planifikatu eta egitea.	
GAUZATZE ADIERAZLEAK	
Adierazlea	**Urteko Helburua**
LGEP berriaren gauzatzea eta hedapena gidatzea	1
Hazik diseinatutako plataforma betetzea	1
EMAITZA ADIERAZLEAK	
Adierazlea	**Urteko Helburua**
-	-

ZERBITZUA	
Z. 2.- Erakunde pribatuei eta publikoei jarduera ekonomikoaren eta bizi-kalitatearen arloko prestakuntza-programei eta diru-laguntzei buruzko informazioa eta aholkularitza ematea.	
DESKRIBAPENA	
Ekintzaileei eta enpresei egindako laguntza edota tutorizazio lanak jasotzen dira (formakuntza, laguntza eta jarraipena, monitorizazioa, laguntzen aholkularitza, etab). HAZI Fundazioarekin elkarlanean dinamizazio lanak aurrera eramaten dira Sailburuordetzari laguntzeko. Proiektu edo ideia daukaten pertsona zein entitateei aholkatze pertsonalizatua eman zein finantzaketarako iturriak bilatzen: dagokion laguntza lerroan kokatzen, dokumentazioa egiaztatzen, eskakizunaren kudeaketa, administrazioko tramiteak (justifikazioak, luzapenak,...), GEROA programara eta LEADER laguntzen programara ekintzaileak zuzendu. Administrazio publikoari lagundu beharrezkoak diren ziurtagiriak egin, dirulaguntza programetan aholkularitza eman edo informazioa eskura arazi. Eusko Jaurlaritzako Landa Garapenaren eta Europar Politiken Zuzendaritzari laguntza ematea, zuzendaritza honek deitutako laguntza-ildoak gara ditzan, bai eta Sailburuordetzaren beste finantzaketa-lerro batzuei ere. Proiektuen gauzatzearen jarraipena. Administrazioari laguntzea diruz lagundutako inbertsioak mantentzen direla egiaztatzen.	
GAUZATZE ADIERAZLEAK	
Adierazlea	**Urteko Helburua**
RE05. Laguntza jaso duten ekintzaileen kopurua	10 Emak. 10 Gizon. Guztira: 20
RE07. Modu koordinatuan egindako aholkularitza-jardueren kopurua	25
EMAITZA ADIERAZLEAK	
Adierazlea	**Urteko Helburua**
RS04. Azpiegitura eta/edo zerbitzu hobetuen onuradun kopurua	10
RS12. Sortutako enplegu kopurua	5

RS07. Egindako aholkularitza-jardueretan artatutako pertsonen/eragileen kopurua	25

ZERBITZUA	
Z. 3.- Sailburuordetzak eta Foru Aldundiak bultzatutako plan eta programak bultzatu eta dinamizatu.	
DESKRIBAPENA	
Euskal instituzioek martxan jarri duten erreleborako estrategia dinamizatu. Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren turismo estrategia gauzatu, aurten DTI -HTA (Destino Turistico inteligente - Helmuga Turistiko Adimendua) programa burutu. Elikadura arloan, instituzio publikoen lehenatsunekin betetzeaz gain, Bizkaimendiren bitartez ekimen batzuk garatuko dira, hurbileko salmentarako udalentzako merkatu eta ferien eredua landu ELIKAren koordinaziopean.	
GAUZATZE ADIERAZLEAK	
Adierazlea	**Urteko Helburua**
Egindako bilketa-ekintzen kopurua	6
EMAITZA ADIERAZLEAK	
Adierazlea	**Urteko Helburua**
Erreleborako jardunaldiak	1
Erreleboa burutzeko interesatuekin esku-hartzea	10
DTI-HTA prozesua garatu	1
Antolakuntzan parte hartutako merkatu edo feriak	6

ZERBITZUA	
Z. 4.- Baserrietan nekazal aktibitatearen eraginez sortutako hondakinen kudeaketa	
DESKRIBAPENA	
Nekazal ustiategien hondakinen bilketa eta tratamendua: - Plastikoen bilketa eta kudeaketa - Ardi-ilearen bilketa eta tratamendu-gunera garraiatu. Alkarteak onartuta daukan Elikadura Estrategiko 4. ildo estrategikoari (zikloa itxi) erantzuten dio. Bizkaiko nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategietako hondakinen bilketa koordinatua. Horrela, bilketa egutegi bat ezartzen da urtero, eta informazio-liburuxka bat argitaratzen da. Hondakin motaren arabera eskualde bakoitzak bere lan sistema ezartzen du. Bizkaimendiren markoan, honako lan honek egiten dira: - Bilketa guztien egutegia eta informazio hau jasotzen dute liburuxka: plastikoak,ardi-ilea, zoosanitarioak eta fitosanitarioak. - Elementu zorrotz zoosanitarioak biltzea eta tratatzea.	
GAUZATZE ADIERAZLEAK	
Adierazlea	**Urteko Helburua**
Egindako bilketa-ekintzen kopurua	4
EMAITZA ADIERAZLEAK	
Adierazlea	**Urteko Helburua**

Bildutako plastikoa (tonak)	12
Bildutako artilea (tonak)	10
Bildutako elementu ziztatzaileen edukiontzi kopurua	1,5
Produktu zoosanitarioen edukiontzi kopurua	7

4. LGEPren URTEKO KUDEAKETA PLANA: ARDATZAK LEHENESTEA ETA EKINTZA ERALDATZAILEAK HAUTATZEA

LGEPren Urteko Kudeaketa Planek (UKP) urtean zehar egin beharreko ekintzen plangintza ezartzen dute, eta, horrela, LGEPn zehaztutako jarduera-ildoak zehazten dira eta programazio aldi osorako ezarri diren helburuak lortzen laguntzen da.

LGEk, programaren kohesioaren eta koherentziaren bermatzaile gisa bere fase guztietan, LGEPren Urteko Kudeaketa Plana eta Urteko Jarraipen Memoria egiteko, koordinatzeko eta jarraipena egiteko ardura du, bai eta eragileen arteko lankidetza errazteko ere, helburu estrategikoak betetzen direla ziurtatuz.

Horretarako, LGEPren Zuzendaritza Batzordearen esparruan eta elkarlanean, urtero landu beharreko ardatz estrategikoak lehenesten dira, eta garatu beharreko ekintzak ezartzen dira. Ekintza horiek izaera eraldatzaileagatik bereizi behar dira. Eragile bakoitzak, ekintza hauen bultzadan duen inplikazioa indartu egiten da dagozkion interes-adierazpenak formalizatuz.

2026.ko urtarrilaren 22an egin zen Zuzendaritza Batzordean aztertu zen Eskualde Planaren (PCDR-LGEP) 2025 urterako lehentasunezko ardatzen ibilbidea (ur-hornidura/bideak/garraioa) eta horien inguruan egindako ekintzak eta 2026 urterako lehentasunak. Azterketa horren ondorioz, interpretatu da garraioaren ardatzaren inguruan eskumen gutxi dugula hori bultzatzeko eta horren ordez, planteatu da energia berriztagarrien ardatza lehenestea 2026ari begira. Beraz, 2026 urterako lehentasunezko ardatzak ondoko hauek izango dira:

- 01 - Ur-hornidura eta saneamendua

- 02 - Energia-hornidura (elektrikoa, gasa...) eta energia berriztagarri eta jasangarriak
- 04. Bide-sarea eta bideak

5. URKIOLA LGAren EKINTZAK

Atal honetan, eskualdean bultzatu beharreko ekintzak jasotzen dira.

1 EKINTZA: Ur-hornidura eta saneamendua hobetzea Durangaldean

Ardatza	01 ardatza; Ur-hornidura eta saneamendua
Jarduera lerroa:	Kalitatezko oinarrizko azpiegituren sare bat bultzatzea, landa-inguruneko biztanleei ur-hornidurako eta saneamenduko, telekomunikazioetako eta hornidura elektrikoko zerbitzuetarako sarbidea bermatuko diena.
Entitate betearazlea	Urkiola LGE
Inplikatutako erakundeak	Udalak, Ur Partzuergoa, Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Ebroko Konfederazio Hidrografikoa – Europako erakundeak (20.000 biztanletik gorako udalerrietan).
Eskualdeko lurralde-tratamendua	Eskualde osoa
Eskualdeaz gaindiko lurralde-tratamendua	
Urte anitzeko ekintza	EZ

Ekintzaren helburua:

Uraren kudeaketa eraginkorragoa eta iraunkorragoa bermatzeko, ur-hornidurarekin lotutako azpiegiturak hobetu eta digitalizatu behar dira. Ur-bilketa, hornidura, baxuak eta

altak optimizatuz, sistemaren eraginkortasuna areagotuko da eta uraren erabilera jasangarria sustatuko da.

Ekintzaren deskribapena:

Lehentasun honekin koherentzian, Inplikatutako erakunde publikoek beharrezko ekintzak egin behar dituzte azpiegitura hidrikoetan, uraren erabilera iraunkorragoa lortzeko. Entitate betearazle gisa, Urkiola Landa Garapenerako Alkarteak jarraipena egingo du horrela izan dadin eta ardatz honen garapena bermatzeko.

Zeharkako printzipioen integratzea:

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa:

Ur horniketa egokia eskeintzean landa guneko biztanleriari berdintasunean tratatuko da.

Euskara:

Azpiegitura izanik ez du eragin zehatzik euskararen sustapenean, komunikazioa eta seinaletikatik baino haratago, horretarako errespetatuko dela euskaraz egotea.

Jasangarritasuna:

Ur horniketa egokia baliabide hidrikoen erabilera eraginkorra aztertzea eta hobetzeko aukerak detektatzea ahalbidetzen du. Halaber, tokiko ekosistemak babesten laguntzen du, ingurumen-inpaktuak identifikatzean eta neurri zuzentzaileak proposatzean. Herritarrentzako eta jarduera ekonomikoetarako epe luzeko hornidura bermatzen duen kudeaketa arduratsua bultzatzen du.

Eraldaketa digitala eta lurralde adimendunen garapena:

Ekintzaren helburuetako bat da erabilera hidrikoaren irakurketak digitalizatzea, eta horrek, erabilitako uraren kopuruan zorrotzago izateaz gain, datu erreal eta berehalakoak ematen dizkie erakunde kudeatzaileei.

Zein Garapen Jasangarrirako Helburutan (GJH) laguntzen duen:

6. GJH: Ur garbia eta saneamendua Helburu honek uraren erabilgarritasuna, kudeaketa iraunkorra eta pertsona guztientzako saneamendurako sarbidea bermatzea du helburu.

Gauzatze eta emaitza adierazleak

Gauzatze adierazlea	***Neurketa unitatea***	***Urteko Helburua****	***Azken helburua***	***Azken helburuaren urterokoa***
RE03. Azterlanen, inbentarioak, datu-baseak, etab.	*Emaitza txostena*	*1*	-	*2026*
RE04. Hobetutako azpiegitura eta/edo zerbitzuen kopurua	*Hobetutako azpiegiturak*	*3*	-	*2026*

Emaitza adierazlea	***Neurketa unitatea***	***Urteko helburua****	***Azken helburua***	***Azken helburuaren urterokoa***
RS04. Azpiegitura eta/edo zerbitzu hobetuen onuradun kopurua	*Biztanleak*	*200 emakum.* *190 gizon.* *Guztira 390*	-	*2026*
	Ur kontsumoa (litro/biztanle/eguna)	151	-	*2026*

Oharrak

2 EKINTZA: Landa guneko bideen mantenu eta egokitzapena

Ardatza	04 ardatza- Bide-sarea eta bideak
Jarduera lerroa	Landa-eremuetako mugikortasuna erraztea, errepide- eta bide-sarea eta garraio publikoa hobetuz, eta landa-eremuetako biztanleriaren errealitatera eta beharretara egokitzen diren sistema alternatiboak sustatuz, mugikortasun iraunkorra bultzatuz
Entitate betearazlea	Urkiola LGA
Inplikatutako erakundeak	Urkiola LGA, Udalak, Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia
Eskualdeko lurralde-tratamendua	Eskualde osoa
Eskualdeaz gaindiko lurralde-tratamendua	
Urte anitzeko ekintza	EZ

Ekintzaren helburua:

Landa-guneetako irisgarritasuna eta azpiegiturak hobetu nahi dira, baserrietarako sarbideak, baso-pisten mantentze-lanak eta bide publikoen egoera optimizatuz. Horrek, nekazaritzako eta basogintzako jarduerak errazteaz gain, landa-inguruneko biztanleen bizi-kalitatea hobetuko du eta ingurumenaren kontserbazioa bermatuko du.

Ekintzaren deskribapena:

Proiektuak landa-guneetako irisgarritasuna hobetzea bultzatzen du, baserrietarako sarbideak optimizatuz eta bide publikoak egokituz. Baso-pistak osorik mantentzeko helburua du, haien funtzionaltasuna ziurtatzeko eta arriskuak murrizteko. Aurten garrantzi berezi aizango dute Bizkaiko Foru Aldunditik horretarako jarritako diru-laguntzak.

Gure partetik, GR bideak eta txangozaletasunerako eta aisialdirako beste ibilbide batzuen mantentzea (zehazki Urkiola LGAren titularitatepeko GR 229 Mikeldi eta GR 38 -Ardo eta Arrain ibilbidearen Durangaldetik pasatzen diren etapen mantenua) eta hobetzea ere barne hartzen du, haien segurtasuna bermatuz eta ingurunearen erabilera iraunkorra sustatuz.

Jarduera horiek nekazaritza-, baso- eta jolas jarduerak errazten dituzte, baita bisitarien aldetik eratortzen den onura ekonomikoa eta landa-biztanleen bizi-kalitatea hobetzen dute eta natura-ingurunea zaintzen laguntzen dute, azpiegituren kudeaketa arduratsuaren bidez.

Zeharkako printzipioen integratzea

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa:

Landa guneko biztanleriek edota bertara gerturatzen diren bisitariek, erabiltzaile gisa, berdintasunean izango dute eskuragarri azpiegitura hauen erabilera.

Euskara:

Bermatuko da komunikazioa eta seinalestapena, azpiegitura izanik, euskarak duen presentzia ziurtatuz.

Jasangarritasuna:

Proiektuak laguntzen du jasangarritasunean, landa-azpiegiturak nabarmen hobetuz, baserrietarako, bide publikoetarako eta baso-pistetarako irisgarritasuna optimizatuz, eta GR ibilbideak mantentzen direla bermatuz. Jarduketa horiek lurraldearen kudeaketa eraginkorragoa ahalbidetzen dute, bideen narriadurarekin lotutako ingurumen-inpaktuak murrizten dituzte eta ekosistemen kontserbazioa errazten dute. Aldi berean, nekazaritza, baso ustiaketa eta aisialdi jardueren funtzionaltasuna indartzen dute, landa-ingurunearen erresilientzia ekonomikoa bultzatuz.

Eraldaketa digitala eta lurralde adimendunen garapena:

-

Zein Garapen Jasangarrirako Helburutan (GJH) laguntzen duen:

- GJH 9: Industria, berrikuntza eta azpiegitura. Funtsezko landa-azpiegiturak hobetzea (sarbideak, pistak, bidezidorrak), lurralde-konektibitatea eta -erresilientzia indartuz.

- GJH 11: Hiri eta komunitate iraunkorrak. Landaguneetan irisgarritasuna, mugikortasun segurua eta bizi-kalitatea bultzatzen ditu, despopulazioa saihestuz eta komunitate inklusiboagoak sustatuz.

- GJH 15: Lurreko ekosistemen bizitza. Baso-pisten eta bidexken mantentze-lan arduratsuak ingurune naturala kontserbatzen, higadura prebenitzen eta biodibertsitatea babesten laguntzen du.

- GJH 8: Lan duina eta hazkunde ekonomikoa. Nekazaritzako, basogintzako eta aisialdiko jarduerak errazten ditu, tokiko ekonomia bultzatuz eta landa-ingurunean aukerak sortuz.

Gauzatze eta emaitza adierazleak

Gauzatze adierazlea	***Neurketa unitatea***	***Urteko Helburua****	***Azken helburua***	***Azken helburuaren urterokoa***
RE04. Hobetutako azpiegitura eta/edo zerbitzuen kopurua	*Kilometroak*	*200*	-	*2026*

Emaitza adierazlea	***Neurketa unitatea***	***Urteko helburua****	***Azken helburua***	***Azken helburuaren urterokoa***
RS04. Azpiegitura eta/edo zerbitzu hobetuen onuradun kopurua	*Erabiltzaileak*	48.165 emak. 46.433 gizon. Guztira 94.598	-	2026

Oharrak

3 EKINTZA: Energia berriztagarriak eskualdean inplantatzeko proiektua

Ardatza	02 - Energia-hornidura (elektrikoa, gasa...) eta energia berriztagarri eta jasangarriak
Jarduera lerroa	Energia berriztagarriei eta jasangarriei lotutako azpiegituren garapena sustatzea, eta, bereziki, baso-biomasa erabiltzekoak, hiru helbururekin: Euskadiko energia-nahikotasuna handituko duten energia-forma garbiak sortzea; garapen ekonomikoko nitxo berriak ezartzea; baso-azalera handien kudeaketa ziurtatzea, arrisku naturalak saihestuz eta lurraldeari eusten lagunduz; eta iturri berriztagarri eta jasangarrietatik sortutako energiaren autokontsumoa erraztea, bai landa-guneetan, bai nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategietan.
Entitate betearazlea	Urkiola LGA
Inplikatutako erakundeak	Udalak, Bizkaiko Foru Aldundia
Eskualdeko lurralde-tratamendua	Eskualde osoa
Eskualdeaz gaindiko lurralde-tratamendua	
Urte anitzeko ekintza	EZ

Ekintzaren helburua:

Trantsizio energetikoaren lehentasunari erantzunez Durangaldeko landa guneetan bai eta nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategietan iturri berriztagarri eta jasangarrietatik sortu beharreko energiaren autokontsumoa era ordenatu batean zabaltzea.

Ekintzaren deskribapena:

Energia berriztagarrien zabaltzea lehentasuna izateaz gain, mugimendua sortzen ari da lurralde-planetan, udal-plangintzetan eta kontsumitzaile-taldeen sorreran. Bizkaiko Foru Aldundiak, lurralde-garapen orekatuarekin eta lehen sektorea bultzatzearekin duen konpromisoaren esparruan, Landa Garapeneko Elkarteen (ADR) gaitasunak indartzea planteatzen du, trantsizio energetikoa modu estrategiko eta parte-hartzailean integra dezaten Eskualde Garapeneko Planetan, ikuspegi sozial batetik egiten dela bermatuz.

Helburua, beraz, prozedura argia, moldagarria eta operatiboa ezartzea da, ADR bakoitzari ondoren trantsizio energetikoa bere plangintzan zeharka integratzea ahalbidetuko diona. Horretarako, honako fase hauek dituen proiektu bat planteatzen da:

1. Eskualdeen abiapuntuko informazioaren azterketa.
2. Aukerak identifikatzea (proiektuak, gobernantza eta finantzaketa).
3. Formulazio estrategikorako esparru metodologikoa garatzea.
4. Marko hori egiaztatzea eta teknikoki balioztatzea.

Zeharkako printzipioen integratzea

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa:

Landa guneko biztanleriak energia berriztagarrien beharrak asetzeko berdintasunean eragiten diela ziurtatuko da.

Euskara;

Bermatuko da prozesua euskaraz egingo dela.

Jasangarritasuna:

Energia berriztagarrien eskualde mailako proiektu hau jasangarria da, komunitateari onurak ekartzen diolako eta ekonomikoki bideragarria den energía sistema bat garatzen duelako, beti ere ingurumenari kalterik egin gabe eta ikuspegi integratu eta parte hartzaile batetik bideratuta..

Eraldaketa digitala eta lurralde adimendunen garapena:

Eraldaketa digitalaren ikuspegitik, energia berriztagarrien proiektu jasangarriak ez dira soilik energia sortzeko modua: lurralde adimendu baten oinarri estrategikoak dira, datuetan oinarritutako gobernantza, ekonomia berritzailea, herritarren parte-hartzea eta ingurumen kudeaketa aurreratua uztartzen dituztelako. Horrela, Durangaldeak energia-autonomian urratsak ematearekin batera, berrikuntza ekonomikoa, gobernantza aurreratua eta ingurumen kudeaketa adimenduna lortzen ditu.

Zein Garapen Jasangarrirako Helburutan (GJH) laguntzen duen:

GJH 7 – Energia eskuragarria eta ez-kutsagarria: Energia berriztagarriak hedatzen ditu, sare adimendunak eta digitalizazioa sustatzen ditu, Energia-autonomia eta efizientzia handitzen ditu
GJH 11 – Hiri eta komunitate jasangarriak. Lurralde antolamendu adimenduna bultzatzen du, azpiegitura berde eta digitalak garatzen ditu, energia-komunitateak eta parte-hartze digitala indartzen ditu
GJH 13 – Klima-ekintza CO_2 emisioak murrizten ditu. Klima-arriskuen monitorizazio digitala ahalbidetzen du, eskualdearen erresilientzia handitzen du.
GJH 9 – Industria, berrikuntza eta azpiegitura: IoT, datu-analitika eta adimen artifiziala txertatzen ditu, berrikuntza ekosistemak sortzen ditu (start-up teknologikoak, I+G), azpiegitura energetiko eta digital sendoak garatzen ditu.
GJH 8 – Lan duina eta hazkunde ekonomikoa. Tokiko enplegu berriak sortzen ditu (teknologia, mantentze, datu-analitika), ekonomia berdea eta digitala dinamizatzen du, eskualdearen lehiakortasuna handitzen du
GJH 12 – Ekoizpen eta kontsumo arduratsua: Energia-kontsumoaren monitorizazio adimenduna ahalbidetzen du, baliabideen erabilera optimizatzen du, autokontsumo eredua sustatzen du.
GJH 17 – Helburuak lortzeko aliantzak. Administrazio, enpresa, ezagutza teknologiko zentroak eta herritarren arteko lankidetza digitala bultzatzen du eta gobernantza ireki eta datu-partekatze sistemak sortzen ditu.

Gauzatze eta emaitza adierazleak

Gauzatze adierazlea	***Neurketa unitatea***	***Urteko Helburua****	***Azken helburua***	***Azken helburuaren urterokoa***
RE03. Azterlanen, inbentarioak,	*Zenbakia*	*1*	*-*	*2026*

datu-baseak, etab.

Emaitza adierazlea	***Neurketa unitatea***	***Urteko helburua****	***Azken helburua***	***Azken helburuaren urterokoa***

Oharrak

.

4 EKINTZA: HAZTEGIA

Ardatza	(34) Lehentasunezko Sektoreak – Elikadura Katea
Jarduera lerroa	Ekintzailetzari eta landa-ingurunean, kalitatezko enplegu egonkorraren mantentzean eta sorreran eragina duten enpresak sortzeari laguntzeko funtsak, programak eta jarduera instituzionalak koordinatzea.
Entitate betearazlea	Urkiola LGA
Inplikatutako erakundeak	
Eskualdeko lurralde-tratamendua	Eskualde osoa
Eskualdeaz gaindiko lurralde-tratamendua	
Urte anitzeko ekintza	Bai

Ekintzaren helburua:

Ustiapenetan belaunaldi ERRELEBOA eta GAZTEAK erakartzeko egitasmoak sustatu

- Abeltzaintzan aktibo berriak erakarri.

- Sektorean instalatzeko formakuntza sustatu.

- Nekazaritza eskoletako curriculuma errealitatera egokitu, praktika gehiago ustiapenetan. Eskolak eta baserriko errealitatea gerturatu.

Ekintzaren deskribapena:

Baratzezaintza ekologikoan ekintzailetza bultzatzeko espazio bat abian dago. Ekintzaile bik hiru urtez bertan jardun ahal izango dute euren proiektua probatzen. Behin HAZTEGIAtik irtetzen direnean instituzioek dauzkaten erreleborako programetan parte hartzeko aukera izango dute.

2021.ean espazioa egokitzeko lanak hasi ziren. 2022.ean lehenengo ekintzaileak sartu ziren eta 2025.era arte bertan lan egiteko aukera izango dute, hurrengo bi ekintzaileei bidea emanez.

Kontsolidatzen ari den ekimen honek beste bide batzuk zabaltzen dizkigu, abeltzaintzara esperientzia zabaltzeko azpiegituren mantenu eta berrikuntzarekin, edo nekazaritzak esplotazioetan errefortzua sistema bat inplantatzeko.

Zeharkako printzipioen integratzea

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa:

Ekintzailen hautaketa prozesuan emakumearen aldeko puntuazioa barematu da. Lehentasuna emateko, izan ere, lehenengo sektorea oso maskulinizatutako sektorea da.

Euskara:

Ekintzailen hautaketa prozesuan euskararen ezagutzaren puntuazioa barematu da, ekintzak komunikaziorako duen garrantzia aintzat hartuz.

Jasangarritasuna:

Nekazaritza-eremuko errelebo proiektua test-gune batean oinarritua, jasangarria da, sektorean sartzeko gazteek izan ditzaketen oztopoak murrizten dituelako eta nekazari berriek hasieratik arrisku handirik hartu gabe esperimentatzeko aukera dutelako. Lurra, azpiegiturak eta aholkularitza eskuratzeko bide erraztua ematen du, eta horrek proiektuen bideragarritasun ekonomikoa handitzen du. Era berean, praktika agroekologikoak eta

ingurumenarekiko errespetuzko ekoizpen ereduak bultzatzen ditu, jasangarritasun ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa uztartzen dituen tresna izanik.

Eraldaketa digitala eta lurralde adimendunen garapena:

Zein Garapen Jasangarrirako Helburutan (GJH) laguntzen duen:

- ODS 2 Gosea Ezabatzea. Elikadura-sistema jasangarriak eta tokiko ekoizpena indartzen dituelako.

- ODS 4 Hezkuntza Kalitatezkoa. Prestakuntza eta ikaskuntza praktikoa eskaintzen dituelako.

- ODS 8 Lan Duina eta Hazkunde Ekonomikoa. Nekazaritza-enplegu berriak sortzen eta ekintzailetza errazten duelako

- ODS 12 Kontsumo eta Ekoizpen Arduratsua. Praktika agroekologikoak sustatzen dituelako.

- ODS 15 Lurreko Ekosistemak. Biodibertsitatea eta lurzoruaren zaintza babesten dituelako. Era berean, landa-eremuak biziberritzen laguntzen du.

- ODS 11 Hiri eta Landa Komunitate Jasangarriak indartuz.

Gauzatze eta emaitza adierazleak

Gauzatze adierazlea	***Neurketa unitatea***	***Urteko Helburua****	***Azken helburua***	***Azken helburuaren urterokoa***
RE02. Prestakuntza-jardueren kopurua	*Prestakuntza ekintza*	*1*	*1*	*2032*

Emaitza adierazlea	***Neurketa unitatea***	***Urteko helburua****	***Azken helburua***	***Azken helburuaren urterokoa***

RS02.1. Prestakuntza-jardueretan parte hartu duten pertsonen kopurua	*Ekintzaileak*	*1 Emak.* *1 Gizon.* *2 Guztira*	*4 Emak.* *4 Gizon.* *8 Guztira*	*2032*
RS02.2. Emandako prestakuntza-orduen kopurua	*Orduak ekintzaileko/ urteko*	*150*	*150*	*2032*

Oharrak

.

5 EKINTZA: Hamaiketako osasungarriak + Baserria-eskola

Ardatza:	(34) Lehentasunezko Sektoreak – Elikadura Katea
Jarduera lerroa	Sistemen eta horien zerbitzuen mantentzearekin eta lehengoratzearekin lotutako jarduera ekonomiko iraunkorrak bultzatzea, bai eta herritarren osasuna eta ongizatea hobetzen laguntzen dutenak ere.
Entitate betearazlea	Urkiola LGA
Inplikatutako erakundeak	Udalak
Eskualdeko lurralde-tratamendua	Eskualde osoa
Eskualdeaz gaindiko lurralde-tratamendua	
Urte anitzeko ekintza	Ez

Ekintzaren helburua:

- Bertoko produktua kontsumitu eta komertzializatzeko politika publikoa garatu.

- Udalen konpromisoa bilatu. Udalek antolatutako ekintzetan bertoko produktuak erosteko konpromisoa (sariak, herri bazkariak,...).

- Produkzioa eta kontsumo ekologikoa sustatu: Itaurrean proiektua garatu, salmenta zuzena bultzatu

- Bertoko produktuak eskoletan kontsumitu. (Eskola Jantokiak)

- Sentsibilizazio kanpainak gauzatu bertoko eta sasoiko produktua kontsumitzeko, biztanleriari zuzenduta.

- Merkaturatze kanal berriak landu eta arautu:

- Azokak eta merkatuak: asterokoak berreskuratu, Amorebieta-Etxanoko berrindartu, produktuen identifikazioa burutu, balorean jarri.

- Herriko merkatuak arautu eta arauak betearazi.

- Salmenta zuzenerako guneak gehitu.

- Kontsumitzeko ohiturak aprobetxatuz bertoko produktuak bultzatzeko dauden guneetan aukera berriak zabaldu.

- Baserri-eskola dinamikarekin lehenengo sektorearen lana eta esperientziak eskoletara ere gerturatu nahi ditugu, gazteek ezagutu dezaten nekazaritza, abeltzaintza eta baso ustiaketaren nondik norakoa, baita lan-etorkizunerako ere.

Ekintzaren deskribapena:

Ekimen hau Berton- Bertoko plataformarekin batera aurrera eroango da eta Durangaldeko elikagaiak eskoletako hamaiketakoetan sartzea eta umeen osasuna bultzatzea dauzkan helburuak

Elikadura estrategiako 5 ildoetan eragina dauka:

1. Kultura: Durangaldeko elikadura kulturan eragin
2. Merkaturatzea: sareak sortu, bertoko produktuei ikusgarritasuna emon
3. Ekoizpena
4. Zikloa itxi
5. Ezagutza: lankidetza, komunikazioa eta koordinazioa indartu

- Baserri-eskola dinamikarekin lehenengo sektorearen lana eta esperientziak eskoletara ere gerturatu nahi ditugu, gazteek ezagutu dezaten nekazaritza, abeltzaintza eta baso

ustiaketaren nondik norakoa, baita lan-etorkizunerako ere. Jada lehenengo urratsak eman dira Berrizko BHI institutuan, programa bat sortu dutela eta ikastetxea eta baserritarrekin harremanetan jada jarriak gara proiektua diseinatzeko.

Zeharkako printzipioen integratzea

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa: Ekoizle zein bezeroen berdintasunean eragiten diela ziurtatzen da.

Euskara; Hezkuntza eta komunikazioarekin zerikusia duen heinean, bermatzen da euskaraz egingo dela.

Jasangarritasuna: “0 kilometroko” produktuen kontsumoak jasangarritasunean eragin positiboa du, tokiko ekoizleei lehentasuna emateak ekonomia bertakoa indartzen du eta landa-eremuetako jarduera mantentzen laguntzen du. Gainera, produktu freskoagoak eta sasoikoak kontsumitzea sustatzen du, ingurumen-inpaktua txikiagoa duten ekoizpen-ereduekin lotuta. Gainera, garraio-distantziak murrizten direlako eta energia-kontsumoa txikitzen direlako. 0 kilometroko kontsumoak jasangarritasun ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa batera indartzen ditu.

Eraldaketa digitala eta lurralde adimendunen garapena:

Zein Garapen Jasangarrirako Helburutan (GJH) laguntzen duen:

- ODS 2 – Gosea Ezabatzea: tokiko elikadura-sistemak indartzen ditu eta elikagai osasuntsuagoak eta freskoagoak sustatzen ditu. - ODS 8 – Lan Duina eta Hazkunde Ekonomikoa: tokiko ekoizleei laguntzen die eta ekonomia bertakoa dinamizatzen du.

- ODS 11 – Hiri eta Landa Komunitate Jasangarriak: komunitate kohesionatuagoak eta landa-eremu biziagoak sortzen laguntzen du.

- ODS 12 – Kontsumo eta Ekoizpen Arduratsua: kate laburrak eta ekoizpen jasangarriagoak bultzatzen ditu.

- ODS 13 – Klima Aldaketaren Aurkako Neurriak: garraio-distantziak murriztuta, CO_2 isuriak gutxitzen ditu.

- ODS 15 – Lurreko Ekosistemak: tokiko biodibertsitatea eta lurraldearen zaintza indartzen laguntzen du.

Gauzatze eta emaitza adierazleak

Gauzatze adierazlea	***Neurketa unitatea***	***Urteko Helburua****	***Azken helburua***	***Azken helburuaren urterokoa***
RE01. Antolatutako informazio- eta sentsibilizazio-jardunaldien kopurua	*Inplikatutako eskolak*	*3*	*-*	*2026*
RE08. Tokiko produktu antolatuak merkaturatzeko jardueren kopurua (azokak, merkatuak, etab.)	*Jarduerak*	*3*	*-*	*2026*
Emaitza adierazlea	***Neurketa unitatea***	***Urteko helburua****	***Azken helburua***	***Azken helburuaren urterokoa***
RS01. Informazio- eta sentsibilizazio-jardunaldietara bertaratutako pertsonen kopurua	*Pertsonak*	*15 Emak. 15 Gizon. 30 Guztira*	*-*	*2026*

RS08.1. Azoka, merkatu eta abarretan parte hartzen duten agente ekoizleen kopurua.	Zerbitzua eskeintzen duten ekoizleen kopurua	6	-	2026
	Zerbitzua jasotzen duten umeak	*62 Emak. 58 Gizon. 120 Guztira*	-	*2026*

Oharrak

.

6 EKINTZA: Ekoizpenetan errefortzua

Ardatza:	(34) Lehentasunezko Sektoreak – Elikadura Katea
Jarduera lerroa	Ekintzailetzari eta landa-ingurunean, kalitatezko enplegu egonkorraren mantentzean eta sorreran eragina duten enpresak sortzeari laguntzeko funtsak, programak eta jarduera instituzionalak koordinatzea.
Entitate betearazlea	Urkiola LGA
Inplikatutako erakundeak	
Eskualdeko lurralde-tratamendua	Eskualde osoa
Eskualdeaz gaindiko lurralde-tratamendua	
Urte anitzeko ekintza	Ez

Ekintzaren helburua:

Proiektu honen helburua bikoitza da. Alde batetik baserritar berri posibleei heziketa praktiko eta teorikoa ematea eta bestetik lanean dauden baserritarrei lagundu euren ustiategietan ohiko lanetan.

Elikadura estrategiako 5 ildoetan eragina dauka:

1. Kultura: Durangaldeko elikadura kulturan eragin

2. Merkaturatzea: sareak sortu, bertoko produktuei ikusgarritasuna emon

3. Ekoizpena

4. Zikloa itxi

5. Ezagutza: lankidetza, komunikazioa eta koordinazioa indartu

Ekintzaren deskribapena:

Sektoretik heldu zaigu ustiategietan hainbat zereginetan laguntza eta errefortzua egiteko beharra. Honi aurre egiteak behartzen gaitu erantzun bat ematera, lan eta kontratazioaren arautegiarekin bat datorrena eta noski, errefortzua emango duen langilearen eskubideen bermearen ikuspegitik ere. Langilearen eginbeharra formazio terminoetan ulertu beharko zen, aurrerago sektorean inplantatzeko ikuspegi batetik.

Beraz, lehenik eta behin, errefortzua behar duten ustiategiak identifikatu, lan karga definitu eta hautagaiak bilatu eta era egokian, babes legala ematea.

Zeharkako printzipioen integratzea

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa:

Ekoizle zein langileei berdintasunean eragiten diela ziurtatu behar da.

Euskara;

Ekintzak hezkuntza eta lanarekin zerikusia duen heinean, bermatu behar da euskaraz egingo dela.

Jasangarritasuna:

Lehen sektorean enplegua sortzen duen proiektu bat jasangarria da, tokiko ekoizpena indartzen duelako eta elikadura sistema hurbilagoak eta eraginkorragoak sortzen dituelako. Landa eremuetan jarduera ekonomikoa mantentzen laguntzen du eta komunitatearen kohesioa sendotzen du. Gainera, belaunaldien arteko erreleboa errazten du, nekazaritza jarduera ez galtzea bermatuz. Azken batean, ekonomia lokala dinamizatzen, gizarte-egitura indartzen eta ingurunea zaintzen laguntzen dutenez, ikuspegi integratutik jasangarriak dira.

Eraldaketa digitala eta lurralde adimendunen garapena:

Zein Garapen Jasangarrirako Helburutan (GJH) laguntzen duen:

- GJH 2 – Gosea Ezabatzea: tokiko elikadura sistemak indartzen ditu eta ekoizpen jasangarria bultzatzen du. - GJH 8 – Lan Duina eta Hazkunde Ekonomikoa: enplegu berriak sortzen ditu eta landa-ekonomia dinamizatzen du. - GJH 11 – Hiri eta Landa Komunitate Jasangarriak: landa-eremuak biziberritzen laguntzen du eta biztanleria finkatzen. - GJH 12 – Kontsumo eta Ekoizpen Arduratsua: baliabideen erabilera eraginkorra eta ekoizpen jasangarria sustatzen ditu. - GJH 13 – Klima Aldaketaren Aurkako Neurriak: tokiko ekoizpena eta kate laburrak bultzatzeak isuriak murrizten laguntzen du. - GJH 15 – Lurreko Ekosistemak: lurzoruaren, biodibertsitatearen eta paisaiaren zaintza indartzen du.

Gauzatze eta emaitza adierazleak

Gauzatze adierazlea	***Neurketa unitatea***	***Urteko Helburua****	***Azken helburua***	***Azken helburuaren urterokoa***
RE12. Lagundutako enpresa edo erakundeen kopurua	*Enpresa*	*10*	*-*	*2026*

Emaitza adierazlea	***Neurketa unitatea***	***Urteko helburua****	***Azken helburua***	***Azken helburuaren urterokoa***

RS12. Sortutako enplegu kopurua	*Langileak*	*1*	-	*2026*

Oharrak

.

7 EKINTZA: Elikadurako proiektuen komunikazioa + ELIKATU

06 ardatza:	(34) Lehentasunezko Sektoreak – Elikadura Katea
Jarduera lerroa	Sistemen eta horien zerbitzuen mantentzearekin eta lehengoratzearekin lotutako jarduera ekonomiko iraunkorrak bultzatzea, bai eta herritarren osasuna eta ongizatea hobetzen laguntzen dutenak ere.
Entitate betearazlea	Urkiola LGA
Inplikatutako erakundeak	
Eskualdeko lurralde-tratamendua	Eskualde osoa
Eskualdeaz gaindiko lurralde-tratamendua	
Urte anitzeko ekintza	Ez

Ekintzaren helburua:

BERTOKO PRODUKTUEN KONTSUMOA sustatzeko (0 km) komunikazio eta marketing tekniken erabilera.

Ekintzaren deskribapena:

Aurreko urtetatik datozen proiektu eta 2025.ekoei ikusgaitasuna eta Durangaldeko gizartean eragina eduki daitezen komunikazioa ezinbesteko zeharkako gaia: elikadurako webgunea eta sare sozialak.

Elikadura estrategiako 5 ildoetan eragina dauka:

1. Kultura: Durangaldeko elikadura kulturan eragin

2. Merkaturatzea: sareak sortu, bertoko produktuei ikusgarritasuna emon

3. Ekoizpena

4. Zikloa itxi

5. Ezagutza: lankidetza, komunikazioa eta koordinazioa indartu

Zeharkako printzipioen integratzea

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa:

Ekoizle, bezeroen zein iritzi publikoa oro har helburutzat hartuta, berdintasunean eragiten diela ziurtatu behar da.

Euskara;

Komunikazioarekin zerikusia duen heinean, bermatu behar da euskaraz egingo dela.

Jasangarritasuna:

0 kilometroko produktuen salmenta sustatzen duen komunikazio proiektu bat jasangarria da, tokiko ekoizpena eta kontsumo arduratsua bultzatzen dituelako. Garraio-distantziak murrizteak CO_2 isuriak gutxitzen ditu, eta horrek ingurumen-inpaktua txikitzen du. Aldi berean, tokiko ekoizleei ikusgarritasuna ematen die, ekonomia bertakoa indartuz eta landa-eremuetan enplegua eta jarduera mantenduz. Komunikazioak kontzientzia soziala handitzen du, herritarrei elikadura-kate laburren onurak ezagutaraziz eta ohitura osasungarriagoak sustatuz.

Eraldaketa digitala eta lurralde adimendunen garapena:

Plataforma digitalen bidez konektatuz. Marketin digitalak, sare sozialen erabilerak eta online salmenta-kanalek ekoizleei merkatu zabalagoetara iristeko aukera ematen diete, eta kontsumitzaileei informazio gardenagoa eta eskuragarriagoa eskaintzen diete. Horrek digitalizazio-gaitasunak indartzen ditu landa-eremuetan, eta sektore honen teknologia berrien adopzioa bizkortzen du.

Zein Garapen Jasangarrirako Helburutan (GJH) laguntzen duen:

- GJH 2 – Gosea Ezabatzea

Tokiko elikadura-sistemak indartzen ditu eta elikagai fresko eta jasangarriak sustatzen ditu.

- GJH 8 – Lan Duina eta Hazkunde Ekonomikoa

Tokiko ekoizleei merkatu gehiago irekitzen dizkie eta ekonomia bertakoa dinamizatzen du.

- GJH 11 – Hiri eta Landa Komunitate Jasangarriak

Landa-eremuetako jarduera eta biztanleria mantentzen laguntzen du, komunitate kohesioa sendotuz.

- GJH 12 – Kontsumo eta Ekoizpen Arduratsua

Kate laburrak, sasoiko produktuak eta ingurumen-inpaktu txikiagoko ohiturak sustatzen ditu.

- GJH 13 – Klima Aldaketaren Aurkako Neurriak

Garraio-distantziak murrizteak CO_2 isuriak gutxitzen ditu eta klima-jasangarritasuna indartzen du.

- GJH 15 – Lurreko Ekosistemak

Tokiko biodibertsitatea eta lurraldearen zaintza babesten laguntzen du, ekoizpen jasangarriagoen bidez.

Gauzatze eta emaitza adierazleak

Gauzatze adierazlea	***Neurketa unitatea***	***Urteko Helburua****	***Azken Helburua***	***Azken helburuaren urterokoa***
RE09. Eskualdean egindako sustapen- eta zabalkunde-jardueren kopurua (web-orriak,	*Ekimen komunikatibo*	*20*	-	*2026*

iragarkiak, liburuxkak, etab.)

Emaitza adierazlea	***Neurketa unitatea***	***Urteko helburua****	***Azken helburua***	***Azken helburuaren urterokoa***
RS09. Eskualdeko sustapen- eta dibulgazio-jardueren hartzaile kopurua	*Jasotzaileak*	*1.018 Emak. 982 Gizon. Guztira 2000*	*-*	*2026*

Oharrak

.

8 EKINTZA: Lorra egin

06 ardatza:	(34) Lehentasunezko Sektoreak – Elikadura Katea
Jarduera lerroa	Ekintzailetzari eta landa-ingurunean, kalitatezko enplegu egonkorraren mantentzean eta sorreran eragina duten enpresak sortzeari laguntzeko funtsak, programak eta jarduera instituzionalak koordinatzea.
Entitate betearazlea	Urkiola LGA
Inplikatutako erakundeak	
Eskualdeko lurralde-tratamendua	Eskualde osoa
Eskualdeaz gaindiko lurralde-tratamendua	
Urte anitzeko ekintza	Ez

Ekintzaren helburua:

Bertoko produktuen ekoizpena suspertzeko, garraio eta distribuzioa sistemak hobetzeko eta merkaturatze proiektuei laguntzeko ekintza da hau, kontsumoa handitzeko kalitatea mantenduz.

Ekintzaren deskribapena:

1- Iraunkor Amorebieta-Etxanoko elkartearekin batera hitzarmen bat sinatuko da garraio eta distribuzioan dute proiektua aurrera egin dezan, Etartie eta Anbotopekorekin lankidetzan garatuko dena.

2- Abeltzainek eta nekazariek (ortuzainek) simaurra partekatzeko sistema. Proiektuak bi ustiategitan edukiontziak jartzea aurreikusten du, ortuzainek simaurra kamioiz jaso eta euren lurretan ongarriz erabiltzeko, tokiko aprobetxamendu zirkularra sortuz.

Urkiola LGAren Elikadura estrategiarekin bat egokitzean lagundu nahi die elkarte hauei.

3- Euskal Herriko ardi txakurren txapelketa antolatzen duen udalari eskualdeko udalerri guztien arteko laguntza.

Elikadura estrategiako 5 ildoetatik 2.ari erantzuten dio:

1. Kultura: Durangaldeko elikadura kulturan eragin
2. Merkaturatzea: sareak sortu, bertoko produktuei ikusgarritasuna emon
3. Ekoizpena
4. Zikloa itxi
5. Ezagutza: lankidetza, komunikazioa eta koordinazioa indartu

Ezagutza: lankidetza, komunikazioa eta koordinazioa indartu

Zeharkako printzipioen integratzea

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa:

Ekoizpenetan eta produktuak merkaturatzeko lan egiten duten gizon eta emakumeen berdintasun printzipioa betetzen dela ziurtatu behar da.

Euskara;

Lagundu nahi zaien proiektuok oso lotuta daude euskararen erabilerarekin, baina bermatuko da horren praktika erabilera.

Jasangarritasuna:

Lehen sektoreko proiektu kolektiboei laguntzea jasangarria da, baliabideak modu eraginkorragoan erabiltzea ahalbidetzen duelako eta ekoizleen arteko lankidetza sendotzen duelako. Talde-dinamikek ezagutza partekatzea eta berrikuntza azkartzen dute, eta horrek ekoizpen-eredu jasangarriagoak garatzea errazten du. Ingurumen jasangarritasuna, gizartea eta ekonomia lokala indartzen ditu.

Eraldaketa digitala eta lurralde adimendunen garapena:

Zein Garapen Jasangarrirako Helburutan (GJH) laguntzen duen:

- GJH 2 – Gosea Ezabatzea

Tokiko elikadura-sistemak indartzen ditu eta elikagai fresko eta jasangarriak sustatzen ditu.

- GJH 8 – Lan Duina eta Hazkunde Ekonomikoa

Tokiko ekoizleei merkatu gehiago irekitzen dizkie eta ekonomia bertakoa dinamizatzen du.

- GJH 11 – Hiri eta Landa Komunitate Jasangarriak

Landa-eremuetako jarduera eta biztanleria mantentzen laguntzen du, komunitate kohesioa sendotuz.

- GJH 12 – Kontsumo eta Ekoizpen Arduratsua

Kate laburrak, sasoiko produktuak eta ingurumen-inpaktu txikiagoko ohiturak sustatzen ditu.

- GJH 13 – Klima Aldaketaren Aurkako Neurriak

Garraio-distantziak murrizteak CO_2 isuriak gutxitzen ditu eta klima-jasangarritasuna indartzen du.

- GJH 15 – Lurreko Ekosistemak

Tokiko biodibertsitatea eta lurraldearen zaintza babesten laguntzen du, ekoizpen jasangarriagoen bidez.

Gauzatze eta emaitza adierazleak

Gauzatze adierazlea	***Neurketa unitatea***	***Urteko Helburua****	***Azken helburua***	***Azken helburuaren urterokoa***
RE12. Lagundutako enpresa edo erakundeen kopurua	*Enpresak*	*4*	*-*	*2026*
RE01. Antolatutako informazio- eta sentsibilizazio-jardunaldien kopurua		*3*	*-*	*2026*
Emaitza adierazlea	***Neurketa unitatea***	***Urteko helburua****	***Azken helburua***	***Azken helburuaren urterokoa***
RS12. Sortutako enplegu kopurua	*Enplegu kopurua*	*1*	*-*	*2026*
RS01. Informazio- eta sentsibilizazio-jardunaldietara bertaratutako pertsonen kopurua		*31 Emak. 29 Gizon. Guztira 60*	*-*	*2026*

Oharrak

.

9 Ekintza: Liztor asiarra

Ardatza:	(34) Lehentasunezko Sektoreak – Elikadura Katea
Jarduera lerroa	HSJ1. Landa-eremuetako eragileen arteko lankidetza bultzatzea, ikerketa- eta berrikuntza-ekintzek beren benetako premiei erantzun diezaieten.
Entitate betearazlea	Urkiola LGA
Inplikatutako erakundeak	
Eskualdeko lurralde-tratamendua	Eskualde osoa
Eskualdeaz gaindiko lurralde-tratamendua	
Urte anitzeko ekintza	Ez

Ekintzaren helburua:

Kanpaina honen bitartez espezie inbaditzaile honen kontrola lortzen da, erlezainen eta ekoizleen jardueran galerak murrizten ditu eta komunitate sena indartzen du, partehartzaile asko gerturatzen direlako proiektura.

Ekintzaren deskribapena:

Parte hartu nahi duten udalen bidez hitzaldiak eman eta parte-hartzaile indibidualei aukera eman tranpak ipintzeko, erlezainekin lankidetzaz. Erlezainei tranpak elikatzeko materiala eskaini.

Elikadura estrategiako 3 ildoan eragina dauka:

1. Kultura: Durangaldeko elikadura kulturan eragin
2. Merkaturatzea: sareak sortu, bertoko produktuei ikusgarritasuna emon
3. Ekoizpena
4. Zikloa itxi
5. Ezagutza: lankidetza, komunikazioa eta koordinazioa indartu

Ezagutza: lankidetza, komunikazioa eta koordinazioa indartu.

Eginbeharrak ondoko hauek dira;

- Hitzaldiak antolatu
- Boluntarioak identifikatu
- Materiala banandu
- Datuen bilketa eta kudeaketa

Zeharkako printzipioen integratzea

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa:

Partehartzaile orori zabalduta, berdintasun printzipio beteko da.

Euskara;

Hitzaldiak euskaraz ematen direla bermatzen da.

Jasangarritasuna:

